

ISIDRO deuna Baserritarren Jaia

Programa

Goizeko 9:30ean: XAPRE trikitixa.

10:00etan: PROZESIOA eta MEZA.

Goizean zehar: Astigarragako baserrietako BARAZKI erakusketa,
Foruen Enparantzan.


11:00etan: HAMAIKETAKO HERRIKOIA, Gure Izarran.

Eguerdiko 12:30ean: **IDI PROBAK:**
Kantabriako Antonio COTARELOren eta
Bizkaiko Iñigo AURREKOETXEAREN idipareak
elkarren aurka.
Bi probetan, 3.200 kiloko harriaz arituko dira
idipareak, pisu librean eta 30 minututan.

Egunean zehar: Andoni EGAÑA eta Sebastian LIZASO
bertsolariak.

Arratsaldeko 14:30ean: Herriko bazkaria eta BASERRITAR ZAHARREI
omenaldia, Gure Izarra Elkartean.

MANTEROLA ANAIAK PENTSUAK S.L.
PENTSU ETA BESTE NEKAZALGAIAK



Pgno. Erratzu, 1
Pabellón 135

Telf. 943 55 03 35
20130 URNIETA

Astigarraga

2014ko maiatzak 15, osteguna



Isidro Deuna Baserritarren jaia




Babeslea: **ASTIGARRAGAKO UDALA**

ISIDRO deunaren egunean OMENTZEKO BASERRITARAK



MARI KARMEN OSTOLAZA ELUSTONDO
75 urte
PLAZETXE baseria



Zestoako Errekondo baserrian jaio zen Mari Karmen, 1938ko abuztuaren 5ean. Joxe eta Rufina zituen gurasoak, eta 8 seme-alabarekin osatutako familiakoa da emakume baserritar hau.

Bost urtetik hamabira bitartean Aizarnazabaleko herri eskolan ibili zen ikasten, inguruko herrietako urte ezberdinetako neska-mutuekin batera. Eskolan ere, idazlanak egiteaz gain, andereñoaren maindireak garbitzen zituzten.

Eskola utzita, baserriko lanetan aritzen zen gurasoeekin eta anai-arrebekin. Oraindik gazte zelarik, hamasei urterekin, Donostiara joan zen neskame etxe partikular batera. Lau urte t erdi eta gero etxera bueltatu zen. Tartean josten ikasi zuen Zarautzen.

Baserriko eta kanpoko lanak egiten zituen Mari Karmenek, eta horietako batean, gaur egun Donostiako Londres hotelaren ondoan zegoen Irua hotelaren ere lanean ibiltzen zen udaran. Donostiarako joan-etorri horietan Jose Mari Imaz ezagutu zuen, Oialume dantzalekuan.

Hogeita sei urte zituenean harekin ezkondu zen eta hiru seme-alaba izan zituzten.

Mari Karmen ezkondu eta gero, beti baserrian aritu izan da ataginarrebari laguntzen, senarrak kanpoan lan egiten baitzuen. Baserriko lan mota guztietan jardun du emakume arduratsu honek, baita familia aurrea ateratzeko eginkizunetan ere, alegia, baserriko "jaun eta jabe".

Oso aditua da baserriko langintzetan, esaterako, behiak jezten, simaurra jasotzen, barazkiak lantzen, artoa jorratzen, belar-meta egiten... Horietan inoiz ez du esualdirik sentitu baserrian, gogoz eta gogor aritu baita beti.

Baserriaren etorkizunaz bere kezak ditu baserritar honek, izan ere, berak baserria beti ogibide eta babesleku izan du, eta gaur egun, gero eta zailago ikusten du horiei eustea, baina itxaropena da ilobak eta suhiak lekukoa hartzearen inguruan, denok elkar hartuta aurrera egingo dutela sineistia.



JOSE MARI IMAZ LOIDI
76 urte
PLAZETXE baseria

1937ko abenduaren 17an Santio mendiko Plazetxe baserrian jaio zen Jose Mari. Gurasoak Plazetxe eta Aiziane baserrikoak ziren eta 5 anai-arrebetatik bigarrena da baserritar hau.

Herriko Foru enparantzan zegoen eskolan 8 urterekin hasi zen eta 14 urterekin utzi zuen. Bitarte horretan, doktrina ikasleik aparte, lagunekin, tarteka, eskolan piper egiten zuen Josek, Arkubi inguruetan gordeta.

Gaztetan lagunekin nahiko parranda egin zuen Jose Mari, esaterako, Oialume eta Txikiendi dantzalekuetan ibili baita makina bat aldiz; eta ateraldi bakoitzean, Mikaela tabernan atalduz eta kontu-kontari bukatzen zuten.

Baserriko eguneroko lanez gain, hamasei urterekin kanpoko eraikuntza-lanari ekin zion Hernaniko Orbegozoko pabiloiak egiten; langintza horretan jardun zuen berrogeita hemezitzi urtera arte, aldakako minez utzi zuen arte.

Soldaduska Santanderko Remonta kanpadendan egitea egokitu zitzaion Joseri, eta ondoren hilaibeteak Burgos hiriko kuartelean, zaldien eta mandoen artean, egin zituen.

Hogeita zazpi urterekin Oialumen ezagututako Mari Karmen Ostolazarekin ezkondu zen eta hiru seme-alaba izan zituzten.

Baserriar honek kanpoan eta baserrian lana egiteaz gain, Santio mendiko auzo mailan, hamaika obra eta konponteketa egin ditu auzolanean bizilagunekin: auzoko errepidetan, alboko hornigoizko paretak egiten, eta herri bideetan, besteak beste.

Joseren esanetan, "baserria aurrera segitzeko oinarritzko zutabeak ahultzen hasiak dira, izan ere, familiaren ogibidea izateko betiko gune hori gero eta zailago egiten da mantentzea; kanpoan eskaintzen diren lanak, ez hain sakrifikauiak, eta diru freskoa eragin handikoak baitira eguneko bizitzan". Dena dela, eraikitakoaz harro dago eta horri eusteko ahalegin handia egingo du beti gure Josek.